



Nº12

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA • 8.zk 2014 • 5€

sumarioa



06. LABURREAN **14.** BANDOEN ARTEKO GERRAK / JUAN M. GONZALEZ **30.** AQUELLOS MARAVILLOSOS SANANTONIOS / JUAN A. HERNANDEZ **44.** AUZO-ELKARTEEN BORROKAK / RAKEL CALVÓ **58.** TXAKOLINA, URTEKO ARDOA? / URI ASTOLA **74.** LA FÁBRICA DE ARMAS DE DURANGO / JUAN L. CALVO **88.** BARRUKO IBILBIDEAK **102.** DURANGO EN EL GRABADO / JOSEBA AIZPURUA **120.** ERMUA, MILAKA ETORKINEN HARLEKU / ESTIBALITZ GONZÁLEZ **132.** EL MISTERIO DE MIKELDI / FERNANDO FERNÁNDEZ Y MIKEL UNZUETA **146.** ELORRIOKO MONASTEGIAK ETA KOMENTUAK / IGOR BASTERRETXEIA **162.** PASIÓN POR LA BÚSQUEDA / LOREA MADINA

hitzaurrea

GEREDIAGA ELKARTEA 1965-2015

Datorren urtean Gerediaga Elkartek 50 urte beteko ditu. Zenbaki potoloa izaki ospatzeko gogoia daukagu, baina bere estatutuetan "Durango Merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea" lez bere burua definitzen duen elkarteaz hausnartzeko aukera izatea ere nahi dugu urteurrena.

Eguna gertu dago; zereginak eta ilusioa pilatu egiten dira. Beharrezkoa eta garrantzitsua da transmitzea gure bazkideei, eskualdeko biztanleei eta euskal gizarteari zer izan garen, zer garen eta zer izan nahi dugun. Datorren urtean ohikoak ditugun ekitaldiez gain (horien artean Durangoko Azokak ere 50 urte beteko ditu) bizi ditugun garaietara egokitutako ekintzak burutuko ditugu.

2015. urtea publikoki Gerediaga Elkartea abian ipini zuten pertsona "berezi" guztiak eskertzeko erabili nahi dugu eta bide horretan jarraitzeko konpromisoa plazaratzeko. Etorbizunera begiratu, baina betiko ilusioarekin eta lan egiteko gogoarekin.

Zorionak, Gerediaga!

El próximo año 2015 Gerediaga Elkartea cumplirá 50 años. Un número redondo que sin duda queremos celebrar, pero también una ocasión inmejorable para reflexionar desde el presente sobre esta asociación que se define en sus estatutos como "Asociación de Amigos de la Merindad de Durango".

La fecha se acerca y las tareas y la ilusión se acumulan. Es necesario que sepamos transmitir a nuestros socios, a los habitantes de la comarca y a la sociedad vasca en general lo que hemos sido, lo que somos y hacia donde deseamos ir. Este año que viene, queremos sumar a nuestras actividades habituales (entre ellas la Durangoko Azoka que también cumplirá 50 años), la organización de nuevos actos que contribuyan a situarnos en estos tiempos de cambios que vivimos.

Creemos también que no está de más aprovechar este 2015 para agradecer públicamente la visión de esas personas "especiales" que pusieron en marcha Gerediaga elkartea en ese lejano 1965 y mostrar nuestro compromiso de seguir en ese camino. Con la vista en el futuro, pero con la misma ilusión y ganas de trabajar de siempre.

Zorionak, Gerediaga!





Bizkaia Aurrezki
Kutxaren
Durangoko
sukurtsal zaharra,
1927. urtean eraikia
Diego de Basterra
arkitektuaren
diseinuaren arabera.





BBK
BETIDANIK
DURANGALDEAN

bbk =

LABURREAN

BERBAZ BERBA, AROZ ARO, 25 URTE | DURANGO



Durango euskaldun bat helburu sortu zen Berbaro Elkartea 1989an. 25 urte eta gero eta hasierako helburuari eutsiz, gaztetxo eta nagusien aisialdian zein eskualdeko euskarazko komunikazioan leku esanguratsua dauka. Erazetik Anbotora, Berbaro tabernatik Plateruenera, Goazen ba! Esan eta Olgetan ekin... Euskara aisialdian, merkataritzan, administrazioan eta industrian mamitzen asko izan dira 25 urteko ibilbidean egindakoak eta urtean zehar gogoratu dituzte.

IZENA ETA IZANA | BERRIZ



2008an Berrizko Udalak herriko mapa toponimikoa egiteko ikerketa abiatu zuen, eta 2014an ikerketan bildutako leku-izenak ezagutzera emateko "Berrizko Baserriak" liburua argitaratu du. Lanaren zuzendaria Jon Ander Ramos izan da, Ana Isabel Ugalde Artearen Historian doktorea eta Mikel Gorritxategi Euskaltzaindiako Onomastika batzordeko kidearen laguntzarekin. Gerediaga Elkarteak Durangaldeko baserriei buruz egindako lanetan jasotako argazki batzuk liburuan argiratu dira.

DOINUZHAR KAMARA ABESBATZAK | DURANGO



Doinuzahar Kamara Abesbatzak kontzertu bat eskaini zuen martxoaren 30ean Durangoko Andra Maria Basilikan. Abesbatzak, Jesus Egiguren musikagile durangarraren

zuzendaritzapean, bost obra estreinatu zituen, horietako lau zenbait musikagilek propio eginak Doinuzaharren hogeita hamargarren urteurrena ospatzeko.

Abesbatza 1982an sortu zen. 1985etik 2014ra arte José Luis Ormazabal aritu da zuzendari lanetan. Egun zuzendaritza lana Jesús Egiguren musikagileak hartu du bere gain. Hasieran

abesbatzak Errenazimentuko polifonia bereziki landu bazuen ere, urteen joanarekin, bere erreperitorioa abestalde-musika barrokora, garaikidera eta folklorikora zabaldu du.

AKALARRA MENDIKO BURDINOLA | URKIOLA

Akelarran, Iturriotzetik gertu, Urkiolako Natur Parkean, Iñaki Beitiak aurkitu zuen mendiko burdinola edo haizeolea. C14ri esker K.O-ko IV eta V. mendekoa dela ondozotatu dute. Erromatar berantiarrekoa izaki, Bizkaian mota honetako zaharrena da. 1200 graduko tenperatura hartzeko gai zen labea, inguruko basoetako egurrekin hornitzen dute eta minerala burdin bihurtzen zuten. Armak eta laborantza lanabesak egiteko erabiltzen zen gero. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak lagundu du diruz ikerketa, eta aurkitutakoaren balorea adierazteko panela ipini dute bertan.



Bilbao-Bizkaia Nazioarteko Kantu Lehiaketa

Pedro M^o de Unanue

Concurso Internacional de Canto Bilbao-Bizkaia

Final Handia

Gran Final

**Bilbao
Orkestra
Sinfonikoa**
Cristóbal Soler

zuzendaria

2014/11/29

19:30

Euskalduna

Jauregia

Auditorium



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



*Bilbao-Bizkaia
Nazioarteko Kantu Lehiaketa
Pedro M^o Unanue
Concurso Internacional
de Canto de Bilbao-Bizkaia*



FÉDÉRATION
MONDIALE DES CONCOURS
INTERNATIONAUX
DE MUSIQUE
WORLD FEDERATION OF
INTERNATIONAL
MUSIC COMPETITIONS

www.bizkaia.net/concursoscantobilbao



Guggenheim-Bilbao Museoa



Bizkaiko Foru Libururegia

Bizkaian kultura bizi



Euskalduna Jauregia



Arte Ederretako Museoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

DESANEXIO AKORDIOAZ 25 URTE | IURRETA

1989ko maiatzaren 23an aho batez lurretaren desanexioa onartu zen eta Durangoko udalbatzak eta lurretako kudeaketa batzordekoek akordioa sinatu zuten. 25 urte bete dira. 1926an anexioa gertatu zenetik ibili ziren iurretarrak herri izaera berreskuratuz eta Durangotik banatzeko ahalginetan. 1990eko urtarrilaren 1etik legez, eskubide eta behar guztiekin, lurretak hartu zuen herri izaera berriro.



PLAZA NAGUSIA BERRESKURATZEN | OTXANDIO

Otxandioko Plaza Nagusia ondare babesa duten eraikin eta guneez inguratuta dago: Udaletxea, Bolatokia, frontoia eta hainbat etxebizitza-eraikin. Hirugune historikoa ere monumentu-multzo izendatu zuten abenduaren 5eko 508/1995 dekretuz. Udala hirigune historikoaren ondare balioaz jabetuta, urteak daramatza bere berreskurapenean eta balioan jartzeko lanetan. Hirigunea oinezkoentzat egokitu ondoren, Plaza Nagusia berreskuratzeke plan zabalari ekin diote.



SEGUN LAZKANO | ELORRIO

lazko azaroaren 18an hil zen Segun Lazkano argazkilaria eta euskalzalea.

Bizitza laburra baina emankorra izan zuen elorriarrak. Ogi-bidez irakaslea zen eta bokazióz argazkilaria. Gazterik joan zen Londresera ikastera. Handik etorri ondoren, Eraz aldizkaria aritu zen lanean buru-belarri. Aldi berean, Elorrioko Argazki Taldea indartsu bultzatzeari ekin zion. Herriko musika eta antzerki ekitaldietara hutsik egiten ez zuenez, herriko bizimodu kulturaren kronista paregabea izan zela aitortu behar dugu. Arriola Aretoa gertatutakoa irudiz jaso eta arte bihurtu zuen. Bere estiloak subjektibotasunerantz jo zuen pixkanaka.

Dena dela, ez dugu ahaztu behar Durangaldeko hainbat ikastetxe-



tan ibili zela maisu eta euskalgintzari loturik egon zela (Barriketan taldeko kidea izan zen).

Durangaldeko herritarrek eta bereziki elorriarrek nekez ahaztuko dituzte bere izena eta izana.

SARRI, HITZEZ ETA AHOTSEZ | DURANGO

Literaturzale eta Joseba Sarrionandia idazlearen lana gustuko duten hainbat lagunek herritarrek literaturara hurbiltzeko asmoarekin "Sarri, hitzez eta ahotsez" izeneko egitasmoa abian ipini dute. Ekitaldi jendetsuena Plateruengan egin zen sei orduko jendeaurreko irakurketa etengabekoa izan zen. HERRI MAILAKO EKIMENA bihurtuta, 200 lagunetik gora parte hartu zuten iurretako idazlearen liburuetako pasarteak errezitatuz.



AMANKOMUNAZGOAN ERE

2014KO EGITASMOAK:

- Berbalagun
- Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa
- Kirolean ere euskaraz
- www.euskaragida.com
- Beharsarea
- Zarea:
www.durangaldeaeuskaraz.eu
- Zergatik ez tailerrak
- Zabu-zibu
- Gazteentzako tailerrak



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa

Mancomunidad
de la Merindad de Durango

www.mdurango.org

EUSKARAZ ASKOZ HOBE!




kirolean ere
EUSKARAZ




Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Urkiolako isiltasun gordeak

DURANGALDEKO ETA INDUSIKO KOBAZULOAK

 GEMA Espeleologia Taldea (Abadiño)

 Gorka Martinez / Josu Granja / GEMA

ASKI EZAGUNA ZAIGU Urkiolako Parke Naturaleko haitzen edertasuna. Ezezaguna, aldiz, barrenean ezkutatzen duten altxorra. Urteak joan urteak etorri, tantaz tanta fantasiako itxura hartu duten isiltasun gordeak. Ura, isiltasuna eta erabateko iluntasuna. Denborak neurria galtzen duen lekua. Iraganak eta orainak bat egiten duten tokia. Babestu beharreko ingurua.





Kobazuloak eta gizakiak eskutik ibili izan dira historian zehar. Gure arbasoak bertan bizi izan ziren eta lurpeko iluntasun horrek sortzen zuen misterioak eta ezjakintasunak mitologia eta bestelako sinismentarako bidea zabaldu zuen. Espeleologiaren etorrerarekin ordea, kobak esploratzen eta aztertzen hasi zen gizakia. XIX. mendearen amaieran koka genezake Frantzian, espeleologia modernoaren hasiera, Édouard Alfred Martel-en (1859-1938) eskutik. Gurean berriz, Antonio Ferrer (1900-1976), –*El Hombre de las Cavernas*–, izan zen aintzindaria.

Gaur egun ere, Urkiolako Parke Naturalean, espeleologia bere bidea egiten ari da oraindik eta, urte luzez egindako lan eskergera horri esker, ezagunak zaizkigu, orain ez hainbestearte ezezagunak zitzaizkigun lurpeko inguru asko eta asko. Koba berriak aurkitu dira eta beste batzuk lehenik ere ezagunak ziren arren, esplorazioak kobaren benetako neurria uste zena baino askoz ere handiagoa dela ezagutzera eman digu. Gizakiak inoiz zapaldu gabeko galeriak edo inoiz jaitsi gabeko putzu bertikalak aurkitu dira, lurpeko errekek, lakuak...



📍 Azkillarko koba. Naturaren handitasuna eta gizakiaren txikitasuna. *Josu Granja.*

Kanpotik begiratuta imajinaezina da, txikitatik begi aurrean izan ditugun haitzek bere barnean ezkutatzen duten mundu liluragarria. Gaitza da sinistea, kanpotik ikusita behintzat, Mugarran laku bat dagoela, Untzillatxen 100 metroko luzera eta 60 metroko altuera duen gela haundi bat dagoela, edo Anboton hartz arre bat baino gehiagoren hezurdurak aurkitu direla.

Artikulu honen bitartez, Urkiolako Parke Naturalean dauden koba esanguratsuenen berri eman nahi

dizuegu. Aukeratuenean artean, denetarik aurkituko duzue (koba txikiak eta ez hain txikiak) baina ikusiko duzuen lez, denek dute hemen agertzeko berezitasunen bat. Amaitzeko, aipatuko dizkizuegunen artean, Indusiko karsteo kobak, parkeko mugetatik ezeze, gure eskualdetik kanpo daudela konturatuko zarete. Halere, ikuspuntu geologiko eta kultural batetik begiratuta, besteak dauden inguru beraren parte diren einen, ezin izan ditugu albo batera utzi.



☉ Mariren koba. Anbotoren bihotzean. *GEMA*

DURANGALDEKO KOBAK MARIREN KOBEA

MENDIGUNEA: **ANBOTO**UDALERRIA: **ATXONDO**GARAPENA: **1448 M**DESNIBELA: **188 M**

Euskal Herri osoko kobarik ezagunenetakoa da eta ez du aurkezpen handirik behar. Dituen sarrera biak Anbotoren hego-ekialdeko horma itzelaren erdi-erdian daude. Beharbada, parkeko lekurik ikusgarrienean. Bertara iristeko Gerrikokobea izenez ezagutzen den tunel naturala zeharkatu eta ondoren erlaintz zirrargarri bezain luzea ibili behar da sarrera nagusira iristeko.

Sarrera nagusitik (5x2 m) sartu eta lehenengo metroak horizontalak dira, gela txiki batera iritsi arte. Bertan, begiratoki ederra den bigarren sarrera ikus daiteke: Arrakala estua eta luzea (1x20). Aurrez-aurre ditugu: Azkillarko begia, Udalatx, Aramaio, Arrasate eta Aizkorri, besteak beste.

Arrakala atzean utzi eta aurrera eginez gero, eguzkiaren argitasuna desagertu egiten da apurka-apurka eta erabateko iluntasuna dator. Horizontaltasunak bertikaltasunari uzten dio lekua. Hortik aurrera segurtasunez ibiltzeko, espeleologiako teknikak menperatzea eta material egokia erabiltzea behar beharrezkoa da.

Errenkadan datoz ondoren, *Mariurrika putzua* eta, 2007an aurkitutako zona berriko putzu eta galeriak, 186 metroko sakoneran, leizearen amaierara iritsi arte.

DURANGALDEKO KOBAK ARRILUZEAGAKO KOBEA

MENDIGUNEA: **MUGARRA**UDALERRIA: **IZURTZA**GARAPENA: **1152 M**DESNIBELA: **270 M**

Mugarrak ere badu bere altxorra: Parke Naturaleko leizerik sakonena. Dituen hiru sarrerek Mugararren ipar isurialdean daude. Eta kobazulora iristeko biderik errazena Durangoko Santa Lutziako neberatik oinez hastea da. Neberatik bertatik sarreretako bat ikus daiteke.

Durangarren artean aski ezaguna da "Mugarako meategia" ezizenarekin. Sarrerako galeria burdin minerala lortzeko erabili baitzuten XX. mendearen hasieran. Halere, hain ezaguna ez dena, galeria horretatik behera zabaltzen den leizea da. Kobaren morfologia guztiz aldatzen da eta, 45 metroko lehenengo putzu bertikal baten ostean laku txiki bezain eder bat dago (18x3 m). Horren ostean, putzuak eta estuguneren bat edo beste, bata bestearen ostean datoz 270 metroko sakoneraraino iritsi arte.

DURANGALDEKO KOBAK ERREKAKOBEA



MENDIGUNEA: **UNTZILLATX**



UDALERRIA: **MAÑARIA**



GARAPENA: **510 M**



DESNIBELA: **46 M**

Untzillatx larriki zauritu duten harrobietatik salbu mantendu den leku eder bezain zirrargarria dugu Errekakobea. Untzillatxen hego-ekialdeko isurialdean dago koba honek duen sarrera bakarra, 850 metroko garaieran. Bertara iristeko abiapunturik egokiena Urkiolarako errepede ondoan dagoen Gatzagieta baserria da.

Garapen eta desnibelari erreparatuz gero, ez du ematen azpimarratzeko moduko koba denik, bertan Bizkaiko gela handienen artean koka genezakeena ez balitz egongo: *Ferrer gela*. 1930eko hamarkadan Antonio Ferrer-ek aurkitu zuenean argi eta garbi idatzi zuen: “*La Peña de Untzillaitz está hueca*”. Izenburu hori jarri baitzion 1936an, *Excelsius* kirol egunkarian argitaratu zuen aurkikuntzaren kronikari. Ia 80 urteren ondoren, gure begiek *Ferrer gela* ikusten duten bakoitzean Ferrerrek esandakoa datorkigu burura. Eta ez da gutxiagorako, handitasun horren neurriak kontutan hartuz gero: 100 metro luzeran, 30 metro zabalean eta 60 metro inguru altueran.

 Errekakobea: Ferrer gela. Hutsaren hurrengoak. *Josu Granja*.



DURANGALDEKO KOBAK DEABRUATXEKO KOBEA

-  MENDIGUNEA: **ESKUAGATX**
-  UDALERRIA: **MAÑARIA**
-  GARAPENA: **4500 M**
-  DESNIBELA: **153 M**

Deabruatxeko koba da garapenari erreparatuz gero, gaur-gaurkoz, parkeko kobarik luzeena. Aurkitu zaion sarrera bakarra Eskuagatxeko hego-ekialdeko muga dago. Bertara iristeko aukerarik onena, Urkiolotako azken baserrian hasi eta Akalarraraino doan pista hartzea da.

Eskuagatx mendigune basati bezain ederra da. Potentzial espeleologiko izugarria dauka eta denbora kontua baino ez da izan tamaina horretako aurkikuntza bat egitea. 2010ean GEMAk koba aurkitu zuenetik, errenkadan etorri dira besteak beste, topografiatutako kilometroak, topatu diren lur azpiko bi erreka edo tamaina handiko gela bat edo beste. Deabruatxeko koba, Eskuagatxeko lur azpia eta hidrogeologia hobeto ulertzeko atea izan daitekelakoan gaude.

 Deabruatxeko koba. Izena duenak izana du. *GEMA*.





Deabruatxeko koba. Ispiluari begira. GEMA.



📍 Askondo. Iraganaren isla. *Gorka Martinez.*



DURANGALDEKO KOBAK ASKONDO

 MENDIGUNEA: **URKIOLETA**

 UDALERRIA: **MAÑARIA**

 GARAPENA: **302 M**

 DESNIBELA: **10 M**

Urkiolako Parke Naturaleko mugetatik kanpo dago.

Kobaren sarrera, Mañariko Urkioleta auzoko Asko mendiaren mendebaldeko magalean dago. Kanterazarraren (Aperribai harrobia) alboan hain zuzen ere. Bertara iristeko, Sallobenteko ermitaren ostean dagoen pista hartu behar da. Handik minutu gutxi batzuetara, kobaren sarrerarekin egingo dugu topo.

Gaur-gaurkoz, aurkezpen handirik behar ez duen koba da. 2011ko aurkikuntzaren ondoren Bizkaiko Paleolitoko hirugarren multzo artistikoaren aurrean gaudela esan daiteke, Santimamiñe eta Arenazaren atzetik. Balio handiko aztarnategi arkeologikoa dugu Askondokoa. Urteetan begi aurrean izan dugun altxor eskutua.



 Anbotoren begia.

DURANGALDEKO KOBAK SILIBRANKA II



MENDIGUNEA: **URKIOLETA**



UDALERRIA: **MAÑARIA**



GARAPENA: **1075 M**



DESNIBELA: **50 M**

Urkiolako Parke Naturaleko mugetatik kanpo dago

Askondo atzean utzi eta errepeidean gora eginez gero, Silibranka II-ko beheko sarrera txikiarekin egingo dugu topo bide bazterrean, zentral elektrikora iritsi baino apur bat arinago. Halere, beste sarrera bat dago baina ez da batere erraza topatzen, Asko mendiaren artadi itxian galduta baitago.


Beheko sarreratik sartu eta berehala, narras ibili beharko gara. Gora eta behera, eta ezker-eskuin zabalduko zaizkigu pasabide deseroso bezain estuak. Konturatu orduko, benetako lurpeko labirinto baten aurrean aurkituko gara. Kontuz eta arretaz ibili beharko gara bueltako bidea topatu nahi badugu. Dena-dela, hasierako labirintoaren ondoren kobak tamaina handiagoa hartzen du eta lasaiago ibil gaitetzke. Amaieran, Urkioleta errekarera urak isurtzen dituen lur azpiko erreka ikusteko aukera izango dugu.



Barrenbarro-Arrankorri. Tantakaz tantaka eta mendez mende. *GEMA.*



INDUSIKO KOBAK BARRENBARRO-ARRANKORRI

-  MENDIGUNEA: **INDUSI**
-  UDALERRIA: **DIMA**
-  GARAPENA: **2431 M**
-  DESNIBELA: **123 M**

Bertara iristeko, Dimako Bargondia auzotik hasi beharko gara oinez. Kobazuloa, Bargondiko atxaren hego-mendebaldean dago eta urtaroaren eta euriteen arabera ur zulo bezala funtziona dezaketen bost aho ditu. Horietako hiru Arrankorriko larrean daude eta gainontzeko biak Barrenbarroko troka inguruan.

GEVk hasi zuen kobazulo sistema honen esplorazioa 1968an. Nahiz eta inoiz ere ez zuten Barrenbarro eta Arrankorri batzea lortu. 2001ean orde, GETk fisikoki batu zituen, *hstea* izena jarri zioten katazuloaren bitartez. Orduetik hona, kobazulo sistema bakar batetaz ari garela esan behar dugu. Halere, GEMA Espeleologia Taldeari egotzi behar diogu sistemaren zona berriaren eta handienaren aurkikuntza eta esplorazioa, 2004an eta 2005ean egin zuten berresplorazioaren barruan.

INDUSIKO KOBAK BALTZOLA

-  MENDIGUNEA: **INDUSI**
-  UDALERRIA: **DIMA**
-  GARAPENA: **2160 M**
-  DESNIBELA: **46 M**

Kobagan mendiaren barrenean, aurkezpen handirik merezi ez duen eta gehienontzat aski ezaguna den Baltzolako koba dago. Mitologia, arkeologia, espeleologia eta eskalada uztartzen dituen lekua dugu. Beharbada, Bizkaian esploratu zen lehenengotarikoa eta gaur egun bisita gehien jasotzen dituen koba. Horren adibide da, gaur-gaurkoz bizi duen egoera tamalgarria: Graffitiak eta zaborra edonon. Halere, badu oraindik bere xarma: Sarrera nagusitik sartu eta Gibeltarrerainoko bidea galeria nagusitik eginez gero, erraz imajina ditzazkegu bertan, Sugoi, Jentilak edo Lamiak.



 Abaro-Jentilzubi. Urak dakarrena urak daroa. *Gorka Martinez.*

INDUSIKO KOBAK

ABARO-JENTILZUBI



MENDIGUNEA: **INDUSI**



UDALERRIA: **DIMA**



GARAPENA: **800 M**



DESNIBELA: **45 M**

Kobazulo eder hau, Baltzolako kobaren parean dago, Urrustei mendiaren barrenean hain zuzen ere. Goiko sarrerari (Abaro), gorago dagoen Beikobea izenez ere ezagutzen den Abaroko tunelak ematen dio izena. Eta behekoari (Jentilzubi) aldiz, aldamenean duen izen

bereko harrizko arku naturalak. Abaro, leizea da eta urtaroaren eta euriteen arabera erreka sartzen da bertatik ur-jauzi eder baten bitartez eta bere bidea egiten du hainbat saltoren ondoren beherago sifonatu arte. Jentilzubiko kobak berriz, katazulo deseroso eta galeria ederrak tartekatzen ditu, Abaroko leizearekin bat egin arte.

Bitxikeri moduan, aipamen txiki bat: GEVk hasi zuen koba honen esplorazioa 1968an nahiz eta inoiz ere ez zuten Abaroko leizea eta Jentilzubiko koba batzea lortu. Abadiñoako GEMA Espeleologia Taldeak lortu zuen hori 1994ean, topatzeko erreza ez den katazulo baten bitartez.



Smurfit

Nervión

Go urte

ISO 9001
ISO 14001
ISO 50001
PEFC
FSC



Kappa

Durangaldean



INGURUMENA
SEGURTASUNA
KALITATEA
BERRIKUNTZA
TEKNOLOGIKOA

Regoyos

su relación con el País Vasco

 Juan San Nicolás

AL CUMPLIRSE el centenario del fallecimiento del pintor Darío de Regoyos y Valdés, es una buena oportunidad para escribir sobre su vida y obra, así como para hacer especial mención a sus estancias en el País Vasco y en particular en Durango, donde llevó a cabo más de 40 óleos muy importantes en el conjunto de su obra.

Regoyos llevó una vida muy intensa, viajera y llena de vicisitudes que incidieron enormemente en su formación y en su obra, por ello es preciso comentar brevemente su formación y su arte.

Él fue el único pintor español que practicó en sus obras el pre-impresionismo, el simbolismo, el divisionismo y finalmente el impresionismo, todo ello al mismo tiempo que en Francia y Bélgica lo hacían pintores mundialmente reconocidos, además fue el único de nuestros artistas plásticos que en la década de los 80 y 90 del siglo XIX, formó parte activa en los movimientos de lucha por la libertad del arte en Bélgica y Francia, en los que convivió, colaboró y confraternizó con artistas de todo tipo que hoy tienen reconocimiento mundial.

Santos Darío de Regoyos y Valdés nació en Ribadesella el 1 de Diciembre de 1857, siendo su madre Benita Valdés y Sieres, natural del Puerto de Gijón y su padre Darío de Regoyos Molenillo, (nacido en Cabezón de Pisuerga, de padres ambos nacidos en Valmaseda).



Última foto de Dario de Regoyos.



(1)



(2)

La adolescencia de este artista transcurrió en Madrid, con problemas derivados del deseo de su padre de que fuera arquitecto como él, pero Regoyos detestaba que le hicieran estudiar ciencias y solo le atraía la música y la pintura. Dichas dificultades desaparecieron al fallecer su padre en 1876, cuando solo tenía 18 años y contar con la permisividad de su madre que comprendía mejor sus deseos.

La nueva situación familiar hizo posible que iniciara en el curso 1877-78 su formación en la Escuela de Bellas Artes de San Fernando, con el Belga Carlos de Haes, recibiendo clases solo de Paisaje-Sección Elemental (dibujo). Su formación artística la recibió en Bruselas con el pintor belga Joseph Quinaux, quién a su vez había sido profesor de Carlos de Haes.

Ingresa en 1881 en el círculo Bruselense de L'Essor (El vuelo) que por aquellos años era el más avanzado de los existentes en Bélgica. En enero de 1882 cuando tenía 24 años, expuso por primera vez en él.

En 1883, junto con otros pintores miembros de L'Essor,

crearon el importantísimo círculo revolucionario de Los XX, formado por veinte miembros (siendo nuestro artista el único extranjero), los cuales invitaban (colegiadamente elegidos por su modernidad y calidad artística) a otros veinte artistas de cualquier país. Este círculo intransigente duró 10 años y Regoyos participó en nueve de las diez exposiciones.

Al disolverse Los XX el organizador de sus exposiciones, Octave Maus, creó el círculo de La libre Esthétique que estuvo activo desde 1894 a 1914 en que desapareció, Regoyos expuso en él en varias ocasiones al igual que lo hiciera en ese periodo en París: en Los Independientes y en las Galerías Durand-Ruel. En Barcelona, en Madrid (en las nacionales de Bellas Artes), en Bilbao, San Sebastián y otros muchos lugares.

Con relación a su vida familiar, el 19 de octubre de 1895 cuando Regoyos tenía 37 años, se casó con la joven francesa Henriette de Montguyon y Vingart de 19 años, que vivía en Bilbao. La boda tuvo lugar a las 8 de la mañana en la Basílica de Santa María de Begoña, fuera de todo formalismo.



(3)



(4)

 (1) "Peñas de Urkiola", 1907.  (2) "Tejas nuevas". Durango, 1905.  (3) "Paisaje de Durango".  (4) "Durango y Anboto".

 Regoyos pintando en Durango.



SU RELACIÓN CON EL PAÍS VASCO Y EN ESPECIAL CON DURANGO

Regoyos desde su ida a Bruselas en 1879, compaginó su estancia en esa capital con la de Irún donde se alojó en la Casa del Cura (calle de La Estación), allí permaneció hasta Junio de 1890.

Después se trasladó a San Sebastián, pasando luego a residir en Rentería y volviendo después a Ategorrieta y más tarde a Irún, donde cambió dos veces de dirección familiar.

En 1903 nuevamente regresó a San Sebastián, donde permaneció hasta que en junio de 1905 tuvo que internar a su mujer Henriette en Santa Águeda, como consecuencia de una anemia que había contraído, que unida a la fatiga de los frecuentes cambios de vivienda que había tenido que hacer por la gran movilidad de Regoyos, terminaron por debilitarla y obligarle a un internamiento..

Estuvo en ese centro hasta el 1 de Marzo de 1906. Esta nueva situación familiar obligó al pintor a alojarse temporalmente en Durango (hasta mediados de julio) en Artecalle nº 6. Ocasión que aprovechó para desplazarse a Elorrio, Abadiano Iurreta etc. Durante su estancia en Durango pintó obras urbanas de la calle donde residía, de la Iglesia de Santa Ana y del Arco de Santa Ana. También pintó, entre otras, la obra *Aurresku con lluvia*.

En enero de 1906 estuvo con sus hijos visitando a su mujer en Santa Águeda, donde pintó el cuadro "Toro bajo los arcos" (en el que se ve un toro pasando bajo los arcos del ayuntamiento de la localidad), obra que está en paradero desconocido.

Al terminar Henriette su internado, el 1 de marzo de este año, regresó a San Sebastián, calle Trueba nº 8, donde residían.

En agosto de 1906 sabemos que volvió de nuevo a Elorrio con su mujer e hijos para tomar baños ambos, por motivos de salud. Se alojaron en la Fonda de las Delicias y se acercó en varias ocasiones a Durango para seguir pintando cuadros en la zona.

El 4 de marzo de 1907 fue con su familia a vivir a Durango (a su mujer no le gustaba Bilbao y prefirieron por el momento quedarse en esta villa) a la calle Olmedal nº 46, manteniendo su casa de San Sebastián. Además alquiló un local como estudio en Iurreta, para terminar obras pintadas en la zona.

Esta vivienda de la calle Olmedal estaba situada en la bifurcación, justo en el ángulo del tren de Elorrio con el tranvía eléctrico de Bilbao, a la entrada de Durango, (desde ella llevó a cabo la obra *El tranvía de Bilbao*). En ella vivía también Eusebio Zuloaga y de la Prida, hermano mayor de Daniel Zuloaga, tío de Ignacio Zuloaga, casado en 1904 con la hermana de este, Rosario Zuloaga (para los amigos Dolores). Esta coincidencia permitió a Regoyos convivir con una persona de su mundo artístico y relacionada familiarmente con sus grandes amigos Ignacio y Daniel Zuloaga. Durante su residencia en la calle Olmedal llevó a cabo la mayoría de obras exteriores a la villa de Durango y sus alrededores.

La primera carta que se ha localizado escrita en Durango, desde la calle Olmedal, fue dirigida a Adolfo Guiard y trató el tema de su llegada a esta villa y la conexión con Paul Lafond, gran amigo y admirador de Regoyos y su obra, quién fue director del Museo de Pau, en ella dijo lo siguiente:

Durango, Almedal 46, le 4 Mars (1907)

Querido Adolfo:

Aunque estoy con todas las cajas patas arriba te contesto por si diera la casualidad que acompañaras a Lafond (1) a su regreso y en ese caso me enviaras un telefonema para pasar con vosotros un rato histoire de vous donner un pas de conduite, pero mucho dudo que M. Lafond vuelva a detenerse en Bilbao pues debe estar ya en Pau porque tenia que estar allí para el dia 5. Por otro lado no comprendo su silencio porque pensaba avisarme para que le acompañase a su paso por aquí para ver un triptico en Jolosa que aunque piden mucho queria verlo.

Conque he me aquí en Vizcaya a una hora de esa con todos mis titeres que no son pocos y quizás estoy aquí para rato porque mi mujer tiene odio a Bilbao y le tiene miedo para los chicos ellos que están acostumbrados a aire muy puro.

Estoy en la bifurcación justo en el ángulo del tren de Elorrio con el tranva eléctrico de Bilbao a la entrada del pueblo.

Si ves a Losada se lo dices y que pronto nos veremos.

Jambien le dije a Lafond que si queria abreviar para estar en Pau el 5 tomara el correo del Norte que le llevaria a la frontera en una noche y puede ser que haya hecho eso.

Tuyo affmo.

Dario


(1) Paul Lafond gran amigo de Regoyos, era director del Museo de Bellas Artes de Pau.

A Manuel Losada también le escribió desde Durango la carta siguiente:

5 de marzo de 1907, Durango, Almedal, 46

Amigo Losada:

Como le dije ayer a Guiard, ya estoy en Vizcaya con todos mis chirembolos, que no me ha costado poco, pues sabe Vd. la aversión que mi mujer tiene a Bilbao y no he podido acercarme más de este radio, pero estoy contento porque es uno de los pocos pueblos simpáticos de esta provincia, y no es porque abunden los antipáticos, sino porque cada vez me gustan más las capitales para vivir. Una cosa es el trou artistique para unos dias, pero para la vida es otra cuestión; todos me parecen tristes. Si no fuera por eso, hay tantos Pancorbos en España que me gustan ..., pero ¿cómo vivir en ellos? En fin, creo que mi vida en esta será bastante artistica y que ire a esa a menudo.



© "Urquiola desde Abadiano". 1907.



© "Paisaje de Abadiano y el Amboto".



© "Peña Amboto". 1907.



© "Romeria en Urquiola".



© "Elorrio". 1907.



Regoyos por Constantin Meunier. 1884.



Regoyos por Daniel Vázquez Díaz. 1909.



"Elorrio". 1907.

Regoyos escribió a Daniel Zuloaga la siguiente carta que recoge lo antes dicho:

11 de Marzo de 1907

Amigo Daniel:

La casualidad ha querido que venga a vivir en la misma casa que tu hermano Eusebio, pues estamos debajo de ellos y algunas veces baja la Dolores.

Esto es hermoso, pero desgraciadamente llueve mucho en este país y esto me hace pensar en sus quejas de V. que veo tiene razón, que es más cómodo el clima de Segovia, aunque a mí me guste más esto.

Recuerdos a los tuyos.

Regoyos Mis señas: Omedal 46, Durango

También le escribió a Ignacio Zuloaga en marzo de 1907 comentando la coincidencia de estar alojado en la misma casa que su hermana Dolores y el hecho de haber alquilado en Iurreta un piso como estudio para pintar indicándole sus deseos de hacerlo como los impresionistas hacían, al estilo de Monet, Pissarro etc.

Durango Omedal (Marzo 1907)

Amigo Ignacio:

Acababa de estar en nuestra casa tu hermana Dolores cuando llegó tu carta. Da la coincidencia que vivimos en la misma casa de Eusebio debajo de ellos. Yo enseguida conocí que era tu hermana cuando la vi en el mercado por el parecido que tiene contigo, solamente que esta gruesa y parece un Kubert. De modo que ya ves la casualidad, pero ya se que con él no haces muchas migas. Espero nos veremos un embargo cuando vengas por esta. Yo he alquilado además un piso en Iurreta, aldea de los alrededores con vistas espléndidas para pintar. Desde allí hay ocho o diez motivos que desarrollados según los diferentes estados de atmósfera, constituyen un número infinito de peñas de Urquiola y de aldeas de Iurreta.

Recuerdos y soy tuyo de veras.

Dasto



🕒 "Corderos en el monte".



🕒 "Durango". 1907.



🕒 "Santa Lucía". 1907.



🕒 "Tavira, Durango". 1907.



“Cruz de Kurutzia”. 1905.



“Calle de Durango”. 1907.

“Mercado en Durango”. 1907.




“El tranvía de Bilbao-Durango”. 1907.





“Autoretrato”. 1880.



“Autoretrato”. 1902.

“Paisaje de Durango”. 1907.





☉ "Artecalles por la tarde". 1905.



☉ "Artecalles, último rayo". 1905.

☉ "Arrabalde de Pinondo". 1907.



☉ "Pórtico de Santa María". 1907.



El 6 de Septiembre de 1907 se trasladó a Bilbao a la calle Espartero nº 22- 3º izda (10ª mudanza de la familia), manteniendo abierta su casa de Durango y cerrando la de San Sebastián, de la calle Trueba nº 8. Al final, pese al rechazo de su mujer a residir en Bilbao, terminó aceptándolo, sin embargo regresaba de vez en cuando a su casa de Durango y al estudio de Iurreta.

En Abril de 1908 abandonó definitivamente la casa de Olmedal nº 46 en Durango. siendo este hecho el final de su estancia en el Duranguesado, donde pintó cerca de 40 óleos.

A partir de este año Regoyos residió en Bilbao, Granada, Dax y Barcelona, pero siguió manteniendo su domicilio en Las Arenas, calle de la Estación.

Esto muestra ampliamente que vivió casi siempre en el país Vasco.

Durante su estancia en Durango de 1905 a 1908, Regoyos que ya se encontraba en su apogeo pictórico (pintaba solo a pincel), le permitió llevar a cabo obras con su impresionismo personal de gran calidad, en las que gracias a su experiencia como pintor puntillista, que años atrás fue, conseguía en sus obras reproducir las texturas de suelos, paredes, zonas con vegetación (como los maizales y árboles), alcanzando resultados brillantes. En sus paisajes la luz era captada preferentemente en amaneceres y atardeceres, en ellos el sol con las sombras generadas, llenaban de realidad y colorido a sus cuadros, además siempre que la ocasión lo permitiera la presencia humana formaba parte de ellos.

Estos paisajes los alternaba con obras en la que los temas sociales estaban presentes, entre ellas desta-



☉ Catálogo de la exposición Hommage á Dario de Regoyos. Bruselas 1914.

can las vistas urbanas de calles y plazas o mercados con toda su ambientación humana, en las que también incluía su capacidad de trasladar matices y texturas que la realidad tenía, por ello pintó el Mercado en Durango, o las obras de Artecalle por la mañana y por la tarde, Pórtico de Santa Ana, Arrabal de Pinondo etc. Formando un conjunto muy notable, que completa los trabajos realizados durante su estancia en el Duranguesado.

Juan San Nicolás

Biógrafo de Darío de Regoyos

Gure museoak eskura!



El Pobaleko Burdinola
Ferrería El Pobal
(Muskiz)



Euskal Herria Museoa
Museo Euskal Herria
(Gernika-Lumo)



Arrantzaleen Museoa
Museo del Pescador
(Bermeo)



Ereñozar Erdi-Aroko gaztelua
Castillo medieval de Ereñozar
(Ereño)



Arkeologi Museoa
(Bilbao)

Ven y conócenos!



Arrolako oppiduma
Oppidum de Arrola
(Arratzu)



Omako basoa
Bosque de Oma
(Kortezubi)



Herrixka erromatarra
Poblado romano
(Forua)



Santimamiñe koba
Cueva de Santimamiñe
(Kortezubi)



Txakolingunea
(Bakio)




Desde que se extendió el falso mito de que la fotografía era un fiel reflejo de la realidad, a menudo, a los fotógrafos nos ha tocado hacer de notarios. Certificar, dar fe de que algo existe, aunque a veces nosotros mismos lo dudemos.

Nos toca también dar fe de que algo va a dejar de existir. O que incluso ya no existe. Evidenciar las ausencias es también parte de nuestro cometido. Entonces somos más forenses que notarios.


De la historia ferroviaria de Durango ya hablamos en el número 5 de **astola** en un excelente artículo de Jose Mari Uriarte. Más de un siglo después de su inauguración, las grandes naves donde se reparaban locomotoras y vagones y el puesto de mando de uno de los mayores nudos de comunicación ferroviaria del país nos dicen adiós sin que la mayoría de los durangueses hayan tenido ocasión de visitarlas.

Es por ello que queremos dejar un testimonio visual antes de que las excavadoras y la macroeconomía acaben con un trocito más de nuestra memoria.

 Txelu Angoitia


A G U R


G E L T O K I A





















Cineko
liburuetak
Rutas a pie

BTT
ibilbideak
Rutas BTT

Bisita
gidatuak
Visitas
guiadas

Bisita audio-
gidatuak
Visitas
audioguiadas

Mitologia

Ginkano

Espeleologia

Asteburuko
estekaintza
Packa fin de
semana



Zure neurrira plan bat! Un plan a tu medida!

gustura, a tu gusto



EGUNERO 10:00-14:30
Astelehena, osteguna eta
ostirala: 10:00-14:30 / 16:00-18:30
Urtarrilak 1 eta 5, eta abenduak
25, ibritu

TODOS LOS DIAS 10:00-14:30
Lunes, jueves y viernes:
10:00-14:30 / 16:00-18:30
1 y 6 de enero y 25 de diciembre,
cerrado



Durango, Durangaldea eta Euskadiko
interes-puntuei eta zerbitzuei buruzko
informazioa.

Información sobre
lugares de interés y
servicios en Durango,
Durangaldea y
Euskadi



Beste helmuguei
buruzko informazioa.
Mapak, alojamentuak,
gidak etab.

Información sobre
otros destinos.
Mapas, alojamientos,
guías, etc.



Orsiltzapen onak
eta opari politak.
Posterrak, postalak,
DVDak.

Un buen recuerdo, un
bonito regalo. Posters,
postales, DVD.

turismo@durango-udala.net



Euskara
Castellano
English
Français



Itzenaldi laburrak,
ostatuak, jafetseak,
ibilaldi audiogida-
tua, bisita gidatuak
eta abentura.

Pequeñas salidas,
alojamientos,
restaurantes,
ruta audioguiada,
visitas guiadas y
aventura.

www.turismodurango.net 94 603 39 38



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

EUSKADI  BASQUE COUNTRY

Itzuli Jatorrira

www.euskolabel.net | www.euskolabeldenda.com



 **hazi**
LANDA, ITSASERTZ ETA ELKAGAJEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



DURANGOKO ARATUSTEAK



Marisa Barrena

Txelu Angoitia

GERRA Zibilaren aurreko urteetan, aratusteak ospakizun handiak ziren Durangon, beste herri askotan legez. Durangoko aratuste egunak hauek izaten ziren: “Eguen-zuri” egun honetan ohikoa zen eskola umeak kalerik kale eskean ikustea., “bariku argi”, “zapatu erregular”, “domeka karnabal”, “astelehen karnabal” eta “martitzen karnabal”.

Durango Uriko Aratusteen lehenengo aipamen ezagunak XVII. mendekoak dira. Udaleko akta eta kontu liburuetan jasotzen da horren berri. “Carnestolendas” izenez gain, egun horietako sokamuturrean soltatzen zen bigantxaren berri ere agertzen da aipatutako aktetan. Andra Mariko plazan egiten ziren erromeriak zein sokamuturrak eta astelehen karnabalez irteten zen hartzak be protagonismo berezia zuen.

Pablo Apella eta Vicente Zabalaren *Cien años del Orfeón Durangués* liburuan honelako deskribapena aurkitzen dugu arestian aipatutakoaren lekuko: “el 12 de Febrero de 1884, Alejo Eguidazu solicita del ilustre ayuntamiento permiso para que recorra las calles del pueblo, el lunes de Carnaval, la comparsa del Oso”. Hurrengo mendeko argazki batean berriz, 1930.eko aratusteetako hartzaren konpartsa dugu ikusgai.



Edozein modutan, Durangoko aratusteetako bereizgarri nagusia, Surrandien konpartsa dela esan daiteke. Pertsonaia honen nondik norakoa edo jatorriaren zehaztasunik ez dugun arren, funtsean badauka antzik beste inauteri batzuetan ikusten ditugun pertsonaien janzkera eta rolaekin: abarkak, arranak, animalia irudikatzeak eta batez be, gehiegikeria basatiekin.

Durangoko pertsonaia "Maskarita" edota "Surrandi" izenez ezagutzen ziren erabiltzen zituzten karetek zeukaten sudur handiagatik. Horixe zen euren bereizgarri nagusia. Oraindik bizirik diren durangarrek kontatu digutenez, herriko umek kopla hau kantatuz tentatzen zituzten mozorrotuak:

"Mascarita ya te conozco, por tu cara de morosco"

Aitatutako kareta gain, alkandora zuria, mahoizko praka urdinak, abarkak, galtzerdiak praka gaintetik eta ikusleak astintzeko puxika edo txalekoek osotzen zuten Surrandien janzkera. Manuel de Lekuonak honela deskribatu zituen Surrandien konpartsaokak:

"Vedlos: allá van corriendo por todas las calles, albarcas

en los pies y calzón corto de pastor; los faldones de la camisa al aire y un collar de arranes (cencerros de buey) a la cintura, y en la cara una careta de diforme y descomunal nariz..., con un chaleco viejo que a modo de tralla agitan en sus diestras, van azotando a toda persona con quien tropiezan; y corren, corren como demonios".

Kalean harrapatuz gero, erraza zen Surrandiek puxika edota txalekoaz emandako ipurdikoren bat jasotzea. Halan zein holan, euren desordena eta kaos horretan ere, bazituzten bete beharreko arau batzuk, esate baterako elizpera sartzea debekatua zuten eta hura zen beldurtientzat ia gordeleku bakarra. Aurrekoaren adierazgarri Bernardino de Ercilla Durangoko alkateak 1893. urtean botatako bandoa dugu betebeharrak adieraziz eta zigorrak iragarritz.

